



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

2016/12/03

Batzarretako taldeek 583 zuzenketa-eske aurkeztu ditue 2017ko Bizkaiko Aurrekontuen aurrean

Bizkaiko Batzar Nagusietako taldeek 583 zuzenketa-eske aurkeztu ditue 2017. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokor Proiektuaren aurrean. Kontu horreek batzarretako tramitazioan dagoz Bizkaiko Batzarretan, joan dan urriaren 31n erregistrau ziranetik. Igaz baino 248 zuzenketa-eske gehiago dira.

EH Bilduk, Podemos Bizkaiak, eta PPK aurrekontuak Foru Aldundiari osorik itzultzea eskatu dabe, talde bakotxak Bizkaiko Batzarretan Osoko zuzenketa-eskea aurkeztu dau eta. 2017ko aurrekontuen zenbateko osoa 7.394 milioi eurokoa da, eta horreetatik 1.165 milioi sailek erabili daikien kopurua da.

Batzarretako talde bakotxari jagokonez, eta Foru Gobernua eusten daben talde bietatik hasiz, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Euskal Sozialistak (PSE-EE) 11 zuzenketa-eske partzial aurkeztu ditu. Oposizinoak, bere aldetik, 572 zuzenketa-eske aurkeztu ditu guztira. 143 EH Bilduk aurkeztutakoak dira; 136 Podemos Bizkaiak; 196 PPK; eta 97 Talde Mistoak.

2017ko lurraldeko kontuen aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak holan banatzen dira sail bakotxaren aurrekontuen testuen artean: Euskera eta Kultura sailak 87 zuzenketa-eske jaso ditu; Enplegu, Gizarte Inklusio eta berdintasun sailak 78; Iraunkortasun eta Ingurune Natural sailak 82; Gizarte Ekintzak 57; Herri Administrazio eta Erakunde Harreman sailak 68; Ekonomia eta Lurralde Garapen sailak 93; Ogasun eta Finantza sailak 37; eta Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio sailak 30. Gainera, 42 zuzenketa-eske aurkeztu dira Foru Arau Proiektuaren artikuluen alderdiren bat aldatzeko, eta beste 4 Udal Finantzaketea aldatzeko.

Orain, Bizkaiko Foru Batzarretako mahaiak datorren astean aztertuko ditu zuzenketa-eskeak, osotasuneko 3 zuzenketa-eskeak eztabaidetako eta bozkatzeko osoko bilkurarako deialdia egin aurretik, seguruenez datorren abenduaren 14an Gernikan egingo dan saioan. Osoko horren ostean, beharrezkoa bada, zuzenketa-eske partzialak eztabaidatuko dira batzordean. Eta Batzarretako izapidetzeari bukaerea emoteko, azkenengo osokoa egingo da, eta bertan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean erreserbetan diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
03/12/2016

Los grupos junteros presentan 583 enmiendas a los Presupuestos de Bizkaia de 2017

Los grupos de las Juntas Generales de Bizkaia han presentado un total de 583 enmiendas al Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2017, cuentas que se encuentran en trámite parlamentario en la Cámara foral vizcaína desde su registro el pasado 31 de octubre. Superan en 248 enmiendas a las presentadas el año pasado.

EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP han solicitado la devolución completa del Presupuesto a la Diputación Foral al registrar en el Parlamento de Bizkaia cada una de estas formaciones una enmienda a la Totalidad. El Proyecto de Presupuestos de 2017 incluye un montante total de 7.394 millones de euros, de los que 1.165 millones corresponden al disponible departamental.

Por grupos junteros, y empezando por las dos formaciones que sustentan la labor del Gobierno foral, los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Socialistas Vascos (PSE-EE) han presentado, de manera conjunta, 11 enmiendas parciales. Por su parte, la oposición ha entregado un total de 572 enmiendas. De ellas, 143 son de EH Bildu; 136, de Podemos Bizkaia; 196, del PP ; y 97, del grupo Mixto.

El plazo de presentación concluyó ayer viernes y la distribución de las enmiendas por departamentos ha quedado distribuida de la siguiente forma: el área foral de Euskera y Cultura acumula 87 correcciones; Empleo, Inclusión Social e Igualdad, 78; Sostenibilidad y Medio Natural, 82; Acción Social, 57; Administración Pública y Relaciones Institucionales, 68; Desarrollo Económico y Territorial -el área que más registra-, 93; Hacienda y Finanzas, 37; y Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, 30. Además, existen 42 propuestas para modificar algún aspecto del texto Articulado del Proyecto de Norma Foral y otras 4, piden cambios en la Financiación Municipal.

La Mesa de la Cámara foral vizcaína procederá ahora al análisis de las enmiendas como paso previo a la convocatoria de una sesión plenaria para debatir y votar primeramente las enmiendas a la Totalidad en un pleno que se celebrará previsiblemente el 14 de diciembre en Gernika. Tras esta sesión, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite presupuestario finalizaría con un último pleno, que analice las enmiendas parciales que se reserven en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda.